

## AINTZIN-SOLAS

### ANTONIO BERISTAIN JAUNAREN LIBURUA- RI: **DESBIDERAKETA, BAZTERKETA ETA** **GIZARTEKONTROLA (1983)**

Elkarteko giro berezi batean sarturik gabiltz denok: giza-giroan, alegia.

Giro horren ikusgune bat sarritan indarkeria eta gaiztakeria ageri dira.

Hor dabilta loerazle edo puzuni-gozen edazleak ere: gaizkiñak beren saria biltzen. Alkool edo izpirituarekin beste ainbeste egiten. Zenbait dantza-leku edo usteldegitan, zinemaetan eta telebistan berdin.

Baten lanik gehiena bestek gozatzea ere gure elkartean asko edatua.

Zoritarrez askok gaiztakeriari inadarkeriz erantzun ohi diote, beste gaiztakeri baten bidez. Hortik ez da bakerik.

Ba-dira ordea beste bide batzuek ere: lapurretari, lapurtua itzuliaz; maxio edo gezurlaidoari, salatuari bere izen ona aitortuaz; irainduari, lagun onen bidez eta lagunartean, salatzilla eta iraindua batuaz; baita barkamenaren bidez ere; edota gaiztoai bidea moztuaz; txarkeria egin duanari, kaltea ordaineraziaz, e.a.

Gaiztakeriak, ez bada garaiz antolatzen, bere miña badakarkiola egileari, esan ohi da.

Bizian batek egin dituan oben edo utsegiñak gerokoan maiz agerrerazten dute erantzuera. Hala diote herrietako sinismen eta esaundak.

Liginagako emazte bat hil omentzan eulari zor zion eunpieza bat ordaindu gabe. Bere eunpieza besoan zuala, agertu omentzaien bere etxeoai. Hauek igarri zioten zer nahi zuan eta ordaindu eulari haren zorra. Emaztea ez omentzan gehiago agertu.

Napar batek Irumugatako mugarria —Ataun, Etxarri eta Baikaikuako muga— atarata beste toki batera aldatu omentzuan. Hil zelarik, inguruko mendietan, bere mugarria bizkarrean zuala, gauero agertzen omentzan oska: «Hirumugatako mugarria / Nere animaren galgarria. / Nun sar? Nun sar?» Artzai batek erantzun omentzian: «Atara dean tokian sar zak».

Hala egin omentzuan eta gehiago ez agertu.

Zugarramundin esan zidatenez, neskatx bat hil omentzan bere zorrak ordaindu gabe. Handik laster agertu omentzan lantokia eskatuaz. Etzuen inork ezagutu. Etxe batean hartu zuten mirabetzat. Lan-sariaren bidez zorrak ordaindu zituanean, handik aldendu.

\* \* \*

Utseginen neurria taiutzea gauza zaila. Bere giroan, batez ere elkarte giroan ikasi behar da.

Gizakien egintzak ezin ulertzen ahal ditugu, geurok bizi ez baditugu. Beraz egintza horiek bizi ez dituana ez dago aski agiridun, ez da ondo jantzia, haiek inori adierazteko, ez ezagutzeko ere.

Indarkeriz gaiztakeri asko egiten da. Indarkeriari —lehen esan dugu— erantzuten ahal diogu era askotan. Bat beintzat barkamenagaz; era hau da gure gizabideari ondo dagokiona. Kristauok esan ohi diogu Jainkoari: «barkatu gure zorrak guk geren zordunai barkatzen diegun ezker».

Etxeko aserreak eztitzeko, lehengo garaietan ezagutu ditugu adreriaren batzarrak. Zaharrak eta beste, gehien izentatuak ziran aideak eginerazten zuten billera eta hitz leunen bidez eta Jainkoa

maita beharra aipatuaz, murgiltzen zituzten aserretuak barkamenera eta aldiskidetzera.

Hemen maitetasuna zebillen elkartearen eskarri. Hori ez dan lekuan ez da adiskidetasunik, ez egiazko barkamenik, ez bakerik.

Gure herriko giza-egintzai buruz aipa dugun jokaera horren ikusguneak maiz ageri dira, elkarre-giroan batez ere.

Huna hemen nola gauza hau adierazten zidan serako nere berri-emailebategi, auzoetako hartu-emanen argibideak azaldu nahiaz: «etxe batean norbait txarki gaxotzen delarik, lehenauzoa izaten da berari eta bere etxekoai laguntzeko gehien behartua». Nik esan nion hauxe: «bi auzoak elkarrekin asarretuak egotea gerta liteke; hala ere batak besteari laguntza emango ote lioke?».

«Sekulan asarretu ez balira bezala lagunduko dio: gure asarre, gorroto eta gaiztakeriak ihizien edo pixtien mailan izaten ditugu; bainan elkarren beharra dugunean, beste maila batean behar dugu ibili, karidadeko mailan, Jainkoa maite beharra dugu eta, bera egiaz maite badugu, maite behar ditugu gure lagun urkoak ere».

Hor zebillen euskal-gizabidearen eraginaldia. Euskal-gizabidea bakoitzaren ikermenetan oinarritua ageri zaigu: «ez dakigula sortuak, nahi badugu hala ez badugu, beharbada gutxiena uste dugunean, hemendik eramanez gaituzte; ez gare beraz geuren baitan, beste baten baitan baino; beste hori ordea gu baino lehenagokoa eta aundiagoa noski: hori da Jainkoa».

Beraz, geure izatez, Jainkoari lotuak gaude. Hau gogoratu behar dugu, adimenez aitortuaz eta bihotzez bera (Jainkoa) maitatuaz.

Bainan Jainkoa egiaz maite badugu —lehen esan dugun lez—, gure lagun urkoa ere maite beharko dugu. Maitetasuna da, beraz, gure elkartearen eskarri eta oñarria. Hara bada hor euskal-gizabidearen egitaraua; bera izan da gehientsu, hemengo auzietan, azken-izpidea.

Gizakia ordea askotariko gauza da. Bere baitan dituan irrirts eta griñai nagusitzen maiz uzten die eta adimena bera eta autamena haien mendeko jartzen. Hala indarkeriari ematen dio.

Gaurko lagunok gizakiaren ibilaldiko maila bat gerala esan gantzake. Oraino *hominisazio* izeneko ibilaldian beharbada, geu-

ron onera iritxi gabe. Bainan ez dugu uste behar gudan guztia berez dabilela; gure egintza asko geren autamenaren bidez sortzen ditugu eta horien jabe geu gara. Orregaitik gure egintzak izan litezke batzuek gizabideari dagozkienak, besteak ez; zuzenak eta okerrak.

Ez da beraz arritzekoa gure elkartearen eta ikaskuntzen barne-muñetan, denok ontzat darabilkigun hau agertzea: gizakien bizikera lau mailatakoa dala, alegia azpian, sumagarri edo kosmokia, belarkia, ihizikia; gainean, norekikoa. Azpikoak gainekoaren laguntzaille beharrekoak. Aldezbeste, ohartu gabe, bagabiltz ez gera nor, zenbait gauza baino. Aldezbesteko ibilera hori geron autamenez ba-da, utsegitea izanen da: maila hortan dira gure akatsak, indarkeriak, gorrotoak eta gaiztakeriak.

Ikusi dugunez, gure bizikerak ba-du helburu bat. Norberari eragite bat eta Jainkoaruntz daramakiena.

Kristaugoak albizitua noski gogoeta hau; baliteke lehenagotik sortua, bainan Kristau-Berri-Onak asko eragin dio Euskalerrinari, eta Jainkoaruntz eta lagun-urkoaruntz maitasuna eta Kristo erdutzat erabiltzea, euskaldunen ikusbiran zabalki edatuak ibili dira luzaro.

Gogoeta hauek eta gehiago, xeetasun askorekin, irakurleak atxemanen ditu liburu honen orrietan, Beristain (Antonio) jaunari esker.

Ataun'en, 1982go Azaroaren 25n.